



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2019ko azaroaren 19a

37. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, lan-istripuen tasaren jarraipena egiteko planari buruzkoa. Ainhoa Unzu Gárate andreak egin du (3. or.).
- Galdera, Nafarroako Osasun Zerbitzuaren lan-eskaintza publikoa zehazteko irizpideei buruzkoa. Patricia Fanlo Mateo andreak egin du (3. or.).
- Galdera, kontziliazioaren, ardurakidetzaren eta zainketen banatzearen arloan aurrera egiteari begira Ekintza Planeko neurri beharrezko eta urgenteenak identifikatze aldera ordezkartza sindikal eta feministarekin lan egiteko Funtzio Publikoaren Mahai Orokorra eta Berdintasunaren Kontseilua deitzeari buruzkoa. Patricia Perales Hurtado andreak egin du (4. or.).
- Galdera, eskola-jangelen eredia aldatzeari buruzkoa. Ainhoa Aznárez Igarza andreak egin du (5. or.).
- Galdera, Ekintza Instituzional eta Sozialaren Mahaia sortzeari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (5. or.).
- Galdera, Osasunbideko bitarteko langileei gradua ordaintzeari buruzkoa. Patricia Fanlo Mateo andreak egin du (6. or.).
- Galdera, Lurralde Kohesiorako Departamentuak N-121-A errepideari dagokionez asmotan darabiltzan epeei buruzkoa. Jorge Aguirre Oviedo jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, Legegintzaldi honetan zehar hedabideei laguntzak banatzeko irizpideari buruzkoa. Alberto Bonilla Zafra jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren epaiaren ondoren aurreko legegintzaldiko hizkuntz politika berbera mantentzeari buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egin du (8. or.).
- Galdera, Tuterako barrutian hemodialisia behar duten gaixoen premiei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (8. or.).
- Galdera, N-121-A errepidea hobetzeko den 10 milioi euroko dirulaguntza bat ez galtzearen epe-luzapena eskatzearen arrazoiei buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, lehen sektorearentzako laguntzen deialdiari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (9. or.).

- Galdera, Hezkuntza Departamentuak kudeatutako ikastetxeetako jangela-zerbitzurako baldintza-orrietan sartu beharreko neurri eta aldaketei buruzkoa, klima-aldaketa borrokatzeko konpromisoak gauzatze alde-
ra. Patricia Perales Hurtado andreak egin du (10. or.).
- Galdera, 2019ko azaroaren 15eko gobernu-bilkuran onetsitako hiru lege proiektuetan aurreikusten diren
erreforma fiskalei buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, etxebizitza bat eskuratu ahal izatea bermatzeko neurriei buruzkoa, zehazkiago, etxebizitza bat
eskuratzeko zailtasunik handiena daukaten pertsoneri begira. Arantza Biurrin Urpegui andreak egin du
(11. or.).
- Galdera, zergak aldatzeko hiru lege proiektu aurkeztu izanari buruzkoa. María Jesús Valdemoros Erro
andreak egin du (12. or.).
- Galdera, jakitekoa ea zertan den, Genero Indarkeriaren aurkako Estatuko Itunaren esparruan, Nafarroako
administrazioentzako funtsen transferentzia. Uxue Barkos Berruezo andreak egin du (13. or.).
- Galdera, PPK 2012an onetsitako lan-erreforma indargabetzeari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballe-
ro andreak egin du (13. or.).
- Galdera, EmanZipa-Nafarroan gazteei emantzipatzen laguntzeko programako eskabideen izapidetzeari
buruzkoa. Galdera erretiratzea (14. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, lan-istripuen tasaren jarraipena egiteko planari buruzkoa.

AINHOA UNZU GÁRATE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Gárate andreak aurkeztutako galdera, lan-istripuen tasaren jarraipena egiteko planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ainhoa Unzu Garate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Garapen Ekonomikorako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Lan Osasunaren Kontseiluak legegintzaldiko bere lehen bileran aztertu zuen lan-istripuen tasaren jarraipena egiteko plan bat abiaraztea.

Plan horretan zer neurri sartzeko asmoa dago?

Iruñean, 2019ko azaroaren 11n

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Garate

Galdera, Nafarroako Osasun Zerbitzuaren lan-eskaintza publikoa zehazteko irizpideei buruzkoa.

PATRICIA FANLO MATEO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Fanlo Mateo andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Osasun Zerbitzuaren lan-eskaintza publikoa zehazteko irizpideei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Patricia Fanlo Mateo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osasuneko kontseilariak Parlamentuaren Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Osasunbideak iragarri du guztira 215 postukoa izanen den lan-eskaintza publiko bat aurki egingen

dela. Gobernuaren proposamenean aurreikusiak dira fakultatibo espezialisten 86 enplegu publiko, osasun-fakultatiboen 42, osasun-diplomadunen 74 eta osasun-teknikarien 13.

Zer irizpideri jarraikiz zehaztu da osasuneko lan-eskaintza publikoaren osaera?

Iruñean, 2019ko azaroaren 12an

Foru parlamentaria: Patricia Fanlo Mateo

Galdera, kontziliazioaren, ardurakidetzaren eta zainketen banatzearen arloan aurrera egiteari begira Ekintza Planeko neurri beharrezko eta urgenteenak identifikatze aldera ordezkariak sindikal eta feministarekin lan egiteko Funtzio Publikoaren Mahai Orokorra eta Berdintasunaren Kontseilua deitzeari buruzkoa.

PATRICIA PERALES HURTADO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Perales Hurtado andreak aurkeztutako galdera, kontziliazioaren, ardurakidetzaren eta zainketen banatzearen arloan aurrera egiteari begira Ekintza Planeko neurri beharrezko eta urgenteenak identifikatze aldera ordezkariak sindikal eta feministarekin lan egiteko Funtzio Publikoaren Mahai Orokorra eta Berdintasunaren Kontseilua deitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Patricia Perales Hurtado andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lehendakariak, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilari Javier

Remírez Apesteguía jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Urriaren 3ko Osoko Bilkuran onetsi zen EH Bildu Nafarroak 10-19/MOC 43 espediente-zenbakidun mozioari aurkezturiko zuzenketa bat, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuaren premiazten baitzen dei ditzan Funtzio Publikoko Mahai Orokorra eta Berdintasunerako Kontseilua, aurrekontuak egin baino lehen eta aurrekontu-esleipen nahikoa-ekin garatzen hastearren 17/2019 Foru Legea, helburutzat izanik sindikatuen ordezkariekin eta ordezkari feministekin lan egitea urgentziarik eta premiarik handieneko neurriak identifikatzen, zeinak Ekintza Plan batean bildu beharko baitira, aurrerapausoak eman ahal izate aldera lana eta bizitza pertsonala bateragarri egitearen, erantzunkidetasunaren eta zaintza-banaketa-aren esparruetan.

Eskaera horri dagokionez, eta kontuan harturik deialdia aurrekontuak taxutu baino lehenagotik egin beharrezkoa dela, parlamentari honek honako galdera hau egiten du:

Jadanik deialdia egin al zaie Mahai Orokorrari eta Berdintasunerako Kontseiluari, Parlamentuak harturiko erabakia aurrera eramateko?

Iruñean, 2019ko azaroaren 12an

Foru parlamentaria: Patricia Perales Hurtado

Galdera, eskola-jangelen eredia aldatzeari buruzkoa.

AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkeztutako gaurkotasan handiko galdera, eskola-jangelen eredia aldatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteko eledun Ainhoa Aznárez Igarza andreak Nafarroako Gobernuak lehendakari zuzenduriko gaurkotasan handiko honako galdera hau aurkezten du, azaroaren 21eko Osoko Bilkurarako.

Gero eta guraso-elkarte gehiago ari dira antolaketa-urratsak egiten eredu-aldaketa bat sustatze aldera. Oroitarazten dugu gure haurrek elikadura osasuntsu eta osasungarri baterako daukaten eskubideaz, eta halaber gogorarazten dugu gure eskola-jangeletako elikagai-hornidurako eredia aldatuko duen elikadura batekiko konpromisoa, hurbileko, 0 km-ko eta sasoiko produktuak eskainiko dituen.

Alabaina, horrek guztiak aurrekontu-partiden bitartezko laguntza behar du, eskola-jangelen eraldakuntzarako bidea ziurtatzeko.

Gobernuak aintzat hartuko al du eskola-jangelak jasangarritasun-irizpideei jarraikiz eraldatzearen helburua eta, Kontratu Publikoari buruzko Legearen 17. xedapen iragankorrari heldurik, izendatuko al du aurrekonturik eraldatze horretarako, datorren urteko aurrekontu-partidetan hori aurreikusirik?

Iruñean, 2019ko azaroaren 13an

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Galdera, Ekintza Instituzional eta Sozialaren Mahaia sortzeari buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, Ekintza Instituzional eta Sozialaren Mahaia sortzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko parlamentari Marisa De Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Parlamentu honen Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

Joan den martxoaren 28an, Nafarroako Parlamentuak aho batez mozio bat onetsi zuen, zeinak ekintza-plan bat eskatzen baitzuen HCH-lindanoaren ondoriozko kutsaduraren aurkako neurriak hartzeko, lurzoruetan eta uretan sortzen dituen kalteengatik.

Aipatu mozioak honako hau jasotzen zuen 5. puntuan: "Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du autonomia mailan eta zuzenean ukitutako toki mailetan susta ditzan ekintza instituzional eta sozialeko mahaiak, zeinetan sartuko baitira inplikaturako administrazio guztiak, gizarte zibileko erakundeak eta esparru tekniko eta zientifikoko ordezkariak, helburua izanik autonomia, estatu eta Europako mailan koordinatutako ekintza bat garatzea, ezagutzak partekatze aldera eta beharrezkoak diren Europako, estatuetako eta autonomietako funtsak mobilizatze aldera, ikerkuntza nahiz erremediatze lanak garatzeko xedez ekintza integraleko plan bat taxutzeari begira".

Jakinaren gainean gaude gaur den egunean ez dela inolako aurrerapausorik egin aipaturiko ekintza instituzional eta sozialeko mahai autonomikoa eratzeari dagokionez.

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren aurreikuspenetan sarturik al dago aipaturiko ekintza instituzional eta sozialeko mahaiak eratzea, eta baiezkoan, ezarrita al dauka eginkizun diren ekintza eta lanetarako egutegirik?

Iruñean, 2019ko azaroaren 13an

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

Galdera, Osasunbideko bitarteko langileei gradua ordaintzeari buruzkoa.

PATRICIA FANLO MATEO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Fanlo Mateo andreak aurkeztutako galdera, Osasunbideko bitarteko langileei gradua ordaintzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Patricia Fanlo Mateo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Nafarroako Gobernuak gradu-osagarria azaroko nominan ordainduko die aldi baterakoak diren administrazio-kontratudun langile guztiei, eta atzeraeraginezko ordainsaria 2015eko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez ordainduko die bere langileei.

Osagarri hori aldi baterako langileei atzeraeraginez ordaintzeak 72 milioi euroko kostua izanen du; horretatik, 18 milioi 2019. urteari dagozkio.

Osasunbideko bitarteko langileen kasuan, zein izan da zenbatekoa, eta noiz ordainduko zaie gradua?

Iruñean, 2019ko azaroaren 14an

Foru parlamentaria: Patricia Fanlo Mateo

Galdera, Lurralde Kohesiorako Departamentuak N-121-A errepideari dagokionez asmotan darabiltzan epeei buruzkoa.

JORGE AGUIRRE OVIEDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Aguirre Oviedo jaunak aurkeztutako galdera, Lurralde Kohesiorako Departamentuak N-121-A errepideari dagokionez asmotan darabiltzan epeei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Aguirre Oviedo jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoren babesean, honako galdera hau egiten du, Lurralde Kohesiorako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

N-121-A errepideari dagokionez, zer epe darabiltza asmotan Lurralde Kohesiorako Departamentuak?

Iruñean, 2019ko azaroaren 14an

Foru parlamentaria: Jorge Aguirre Oviedo

Galdera, Legegintzaldi honetan zehar hedabideei laguntzak banatzeko irizpideari buruzkoa.

ALBERTO BONILLA ZAFRA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkeztutako galdera, Legegintzaldi honetan zehar hedabideei laguntzak banatzeko irizpideari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Alberto Bonilla Zafra jaunak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Herritarrekiko Harremanetako kontseilari Ana Ollo andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak eta Herritarrekiko Harremanetako Departamentuak eutsi egiten al diote hedabideentzako laguntzen banaketa, Euskarabidearen bitartez, egitearen irizpideari, legegintzaldi honetan ere?

Iruñean, 2019ko azaroaren 14an

Foru parlamentaria: Alberto Bonilla Zafra

Galdera, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren epaiaren ondoren aurreko legegintzaldiko hizkuntz politika berbera mantentzeari buruzkoa.

JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren epaiaren ondoren aurreko legegintzaldiko hizkuntz politika berbera mantentzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Herritarrekiko Harremanetako kontseilari Ana Olló andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Irmo bilakatu delarik Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren epaia, zeinak bertan behera uzten baitu aurreko legegintzaldian zeuk aurrera eramandako hizkuntz politikaren mamia, zeure karguan hizkuntz politika berari eutsiz segituko duzu?

Iruñean, 2019ko azaroaren 14an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, Tuterako barrutian hemodialisia behar duten gaixoen premiei buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztutako galdera, Tuterako barrutian hemodialisia behar duten gaixoen premiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Osasun Departamentuak nola eginen die aurre Tuterako barrutian hemodialisia behar duten gaixoen premiei?

Iruñean, 2019ko azaroaren 14an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, N-121-A errepidea hobetzeko den 10 milioi euroko dirulaguntza bat ez galtzarren epe-luzapena eskatzearen arrazoiei buruzkoa.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, N-121-A errepidea hobetzeko den 10 milioi euroko dirulaguntza bat ez galtzarren epe-luzapena eskatzearen arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Javier García Jiménez jaunak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilari Bernardo Ciriza Pérez jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zergatik eskatu du luzapena N-121-A errepidea hobetzeko den 10 milioi euroko dirulaguntza bat ez galtzarren?

Iruñean, 2019ko azaroaren 14an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Galdera, lehen sektorearentzako laguntzen deialdiari buruzkoa.

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkeztutako galdera, lehen sektorearentzako laguntzen deialdiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zertan dira lehen sektorearentzako laguntzen deialdiak, nekazaritzako makineriaren eta ekipamenduaren erosketak, nekazari gazteen instalazioa, Nafarroako Ubidearen ureztaketaz bestelako nekazaritza-ustategietako inbertsioak, Nafarroako Ubidearen jarduketa-eremuko ureztaketa-ekipamendurako inbertsioak, produktu berriak, praktika, prozesuak eta teknologiak garatzeari buruzko lankidetzaproiektu pilotuetarako laguntzak?

Iruñean, 2019ko azaroaren 14an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen

Galdera, Hezkuntza Departamentuak kudeatutako ikastetxeetako jangela-zerbitzurako baldintza-orrietan sartu beharreko neurri eta aldaketei buruzkoa, klima-aldaketa borrokatzeko konpromisoak gauzatze aldera.

PATRICIA PERALES HURTADO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Perales Hurtado andreak aurkeztutako galdera, Hezkuntza Departamentuak kudeatutako ikastetxeetako jangela-zerbitzurako baldintza-orrietan sartu beharreko neurri eta aldaketei buruzkoa, klima-aldaketa borrokatzeko konpromisoak gauzatze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu-Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Patricia Perales Hurtado andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilari Carlos Gimeno Gurpegui jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2020an gaurkotu eginen dira Hezkuntza Departamentuak kudeatutako ikastetxeetako jantoki-zerbitzua emateko baldintza-agiriak, eta, oraintsu, Nafarroako Gobernuak zenbait konpromiso hartu ditu klima-aldaketaren aurka borrokatzeko; halatan, 2020ko Agendan jasotzen diren helburu jasagarriekiko konpromiso argi eta garbia erakutsi du.

Kontuan hartuta Parlamentu honek gizarte zibilarekin eta elikagai-subiranotasunaren eraikuntza kolektiboarekin hartutako konpromisoak —elikagai-subiranotasunari buruzko hiru parlamentu ireki egin dira, bai eta landa eta nekazari munduarekiko, hezkuntza-erkidegoarekiko eta gizarte zibilarekiko hainbat foro eta lan-mahai ere—, eta Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 17. xedapen gehigarria ahaztu gabe, parlamentari naizen honek honako hau jakin nahi dut:

Departamentuak zer neurri hartuko ditu eta zer aldaketa sartu nahi ditu baldintza-agirietan konpromiso horiek gauzatzeko?

Iruñean, 2019ko azaroaren 14an

Foru parlamentaria: Patricia Perales Hurtado

Galdera, 2019ko azaroaren 15eko gobernu-bilkuran onetsitako hiru lege proiektuetan aurreikusten diren erreforma fiskalei buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, 2019ko azaroaren 15eko gobernu-bilkuran onetsitako hiru lege proiektuetan aurreikusten diren erreforma fiskalei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko kide Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu daitezten eta Nafarroako Gobernuko lehendakariak ahoz erantzun ditzan 2019ko azaroaren 21eko Osoko Bilkuran:

Zure ustez, Gobernuak hil honen 15ean egindako bilkuran onetsitako hiru lege proiektuetan aurreikusten diren erreforma fiskalek ekitatearen printzipioa indartzeko balioko dute eta, hartara, gehien daukatenek gehiago lagunduko dute krisitik ateratzen? Tributu arloko neurri berriek diru-sarrerera publikoak indartuko al dituzte hurrengo aurrekontu-ekitaldietan?

Iruñean, 2019ko azaroaren 18an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, etxebizitza bat eskuratu ahal izatea bermatzeko neurriei buruzkoa, zehazkiago, etxebizitza bat eskuratzeko zailtasunik handiena daukaten pertsonen begira.

ARANTZA BIURRUN URPEGUI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Arantza Biurrun Urpegui andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, etxebizitza bat eskuratu ahal izatea bermatzeko neurriei buruzkoa, zehazkiago, etxebizitza bat eskuratzeko zailtasunik handiena daukaten pertsonen begira.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Arantza Biurrun Urpegui andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten dio Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariari, 2019ko azaroaren 21eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Etxebizitza bat lortzeko zailtasuna lehen mailako arazoa bihurtu da herritarrentzat oro har eta zailtasun bereziak daukaten pertsonentzat bereziki.

Nafarroako Gobernuak zer politika baliatuko du etxebizitza bat eskuratu ahal izatea bermatzeko eta, zehazkiago, etxebizitza bat eskuratzeko zailtasunik handiena daukaten pertsonen begira?

Iruñean, 2019ko azaroaren 18an

Foru parlamentaria: Arantza Biurrun Urpegui

Galdera, zergak aldatzeko hiru lege proiektu aurkeztu izanari buruzkoa.

MARÍA JESÚS VALDEMOROS ERRO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Jesús Valdemoros Erro andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, zergak aldatzeko hiru lege proiektu aurkeztu izanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen María Jesús Valdemoros Erro andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zergatik aurkeztu dituzu zergak aldatzeko hiru lege proiektu eta ez neurri fiskalei buruzko lege proiektu bakar bat?

Iruñean, 2019ko azaroaren 18an

Foru parlamentaria: María Jesús Valdemoros Erro

Galdera, jakitekoa ea zertan den, Genero Indarkeriaren aurkako Estatuko Itunaren esparruan, Nafarroako administrazioentzako funtsen transferentzia.

UXUE BARKOS BERRUEZO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Uxue Barkos Berruezo andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakitekoa ea zertan den, Genero Indarkeriaren aurkako Estatuko Itunaren esparruan, Nafarroako administrazioentzako funtsen transferentzia.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Uxue Barkos Berruezo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu du, Lehendakarietzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko lehendakariordeak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zertan da, Genero Indarkeriaren aurkako Estatuko Itunaren esparruan, Nafarroako administrazioentzako funtsen transferentzia?

Iruñean, 2019ko azaroaren 18an

Foru parlamentaria: Uxue Barkos Berruezo

Galdera, PPK 2012an onetsitako lan-erreforma indargabetzeari buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, PPK 2012an onetsitako lan-erreforma indargabetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko foru parlamentari Marisa De Simón Caballero

andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egin du, Gobernuako lehendakari María Victoria Chivite Navascués-ek parlamentu honen hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2012ko lan-erreformaren ondorioak suntsitzaileak dira oraindik ere langileentzat. Bere horretan dira kalitatezko enpleguaren suntsiketak, enpleguaren prekarizazioak, laneko desberdintasunak, kaleratze libreak eta negoziazio kolektiboaren ahultzeak.

Nafarroako Gobernuak azaroaren 10eko hauteskundeen ondorioz eratuko den Gobernu zentral berriari eskatuko al dio PPK 2012an onetsitako lan-erreforma indargabetu dezan?

Iruñean, 2019ko azaroaren 18an

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

Galdera, EmanZipa-Nafarroan gazteei emantzipatzen laguntzeko programako eskabideen izapidetzeari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela María Luisa De Simón Caballero andreak aurkezturiko galdera erretiratu izanaz. Galdera EmanZipa-Nafarroan gazteei emantzipatzen laguntzeko programako eskabideen izapidetzeari buruzkoa zen,

eta 2019ko azaroaren 15ko 36. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-19/POR-00261).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

